



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026KO MAIATZAREN 21EKOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, 2026KO MAIATZAREN 25ERAKO ETA EKAINAREN 15ERAKO OSASUN-SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) ERDI-MAILAKO TEKNIKARIEN ETA GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN LANBIDE-KATEGORIA GUZTIETAN DEITUTAKO GREBAN GIZARTEARI EMAN BEHAR ZAIZKION FUNTSEZKO ZERBITZUAK MANTEDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

Langile Komisioen Estatuko Osasun Federazioak eta Sektore Soziosanitarioek (FSS-CCOO) eta Euskadiko Langile Komisioen Konfederazio Sindikalak (CCOO) greba sektoriala deitu dute 2026ko maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) osasun-zerbitzuetako langileentzat, INGESAren mendeko langileak barne, erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategoria guztietan. Greba maiatzaren 25eko 08:00etatik maiatzaren 26ko 08:00etara egingo da, eta ekainaren 15eko 08:00etatik 2026ko ekainaren 16ko 08:00etara.

Bestalde, UGT SERVICIOS PÚBLICOS sindikatuak bat egin du FSS-CCOOK aurkeztutako greba-deialdiarekin, baldintza berberetan, langile-, funtzio-, lurralde- eta denbora-eremuei dagokienez, eta bere egin ditu deialdi horretan ezarritako irizpideak.

Grebarako deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota dago, eta hasitako espedientean jasota dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdina babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea baliatzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako funtsezko eskubideekin, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, nahitaezkoa da neurri egokiak ematea Erkidegoarentzako ezinbesteko zerbitzuak bete daitezen, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Argi dago oinarritzko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak zehaztu behar duela, eta printzipio hori gainditu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizun edo baldintza betetzen ez baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dagoela neurri egokiagorik eraginkortasun bereko helburu hori lortzeko.
3. Proporzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratorzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalteak baino.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela — amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan—, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Denbora-eremuari dagokionez, txandakako bi eguni eragiten dien greba da — 2026ko maiatzaren 25a eta ekainaren 15a —. Lehenengo kasuan, maiatzaren 25eko 08:00etatik maiatzaren 26ko 08:00etara egingo da, eta, bigarrenean, ekainaren 15eko 08:00etatik 2026ko ekainaren 16ko 08:00etara.

Eremu funtzionalari dagokionez, deialdia Osasun Sistema Nazionalako (OSN) osasun-zerbitzuetako langile guztiei zuzenduta dago, INGESAren mendeko langileak barne, erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategoria guztietakoak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, Osasun Sistema Nazionalaren parte da. Beraz, autonomia-erkidego honetan, grebara deituta daude lehen aipatutako kategorietako osasun-langileak, baldin eta Osakidetzako lantokietan lan egiten badute. Horren ondorioz, grebak Osakidetzak emandako lehen mailako arretari eta ospitale-arretari eragiten die.

Osakidetzak aurkeztutako alegazioen arabera, erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien kategorietako osasun-langile guztiei eragiten die grebak, 9.261 pertsona guztira, eta kategoria hauek hartzen ditu: erizaintzako laguntzailea, unitate zentralako koordinatzailea, anatomia patologikoko eta zitologiako teknikaria, audioprotetikoko teknikaria, dietetikako teknikaria, osasun-dokumentazioko teknikaria, osasun-teknikari espezialista, laborategiko teknikaria, erradiodiagnostikoko teknikaria eta erradioterapiako teknikaria.

Eragindako erabiltzaileen kopuruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztiei eragiten die.

Osasuna babestea oinarritzko eskubideetako bat da zuzenbide-estatu guztietan. Egun, herritarrek gutxieneko prestazio sanitarioak eskatzeko duten eskubide gisa ulertzen da eskubide hori, aintzat hartuz giza duintasuna eta estatu bakoitzaren gizartearen eta ekonomiaren garapen-maila. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «pertsona orok du osasuna eta ongizatea edukitzeko eskubidea, eta batez ere, mediku sorospena eta gizarte-zerbitzuak»; ildo berekoak dira Europako Kontseiluaren Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultura-eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE, 1966).

Hortaz, greba-eskubidearen eta Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotako beste zenbait eskubideren arteko gatazkan (bizitzeko eskubidea, osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta osasuna babestekoa), ezinbesteko baldintza da azken horiek bermatu beharra. Osasun-zerbitzu publiko nahiz pribatuak pertsonen osasuna eta bizia zaindu behar dute.

Horren ondorioz, eta greba-deialdiari dagokionez, ez da argudiorik behar edo argudio gutxi behar da larrialdiko zerbitzuak bete-betean mantentzea behar-beharrezkoa dela adierazteko; izan ere, zerbitzu horietan berehala esku hartu ezean, gerta daiteke norbaiten bizia arrisku larrian egotea.

Orobat, «ospitaleratutako pazienteak behar bezala artatu ahal izateko», ospitaleratutako paziente bakoitzari behar bezala eman behar zaizkio botikak, higie-ne egoera egokia bermatu behar zaio, eta jaten eman behar zaio, otorduak errespetatuz; esan nahi baita, beharrezko asistentzia eman behar zaio, bere osotasun fisiko eta morala honda ez dadin.

Era berean, dialisi-prozesuak eta aurrez zehaztutako tratamenduak eta atzeraezinak mantendu beharko dira.

Horri dagokionez, Osasun Sistema Nazionaleko A1 taldeko osasun-langileen grebaren harira (hainbat jardunalditan egin zen deialdia 2026ko otsailean, martxoan, apirilean, maiatzan eta ekainean), eta maiatzeko aldia hastean, Euskadiko Medikuen Sindikatuko Idazkaritza Nagusiak eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak planteatu zuten argitu behar zela, besteak beste, zer funtzio hartu behar ziren atzeraezintzat.

Gogoeta horietan oinarrituta, lan-agintaritzak honek 2026ko apirilaren 24ko Agindua eman zuen, 2026ko otsailaren 11ko Agindua aldatzen duena, besteak beste, prozesu atzeraezintzat hartu behar zela zehazteko. Agindu horren aurkako errekurtsioa jarri zuen SME sindikatuak, oinarritzko eskubideak babesteko prozedura bereziaren bidez. Hala, 2026ko maiatzaren 13ko autoaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 2. atalak adierazi zuen aurkaratutako aginduak zehaztasun handiagoz zehazten zituela alde aurretik ezarritako zerbitzuak, eta honako hau adierazi zuen: «Otsailaren 11ko Aginduak prozesu atzeraezinean erantzun behar zitzaizkion adierazten zuten lekuan, orain aurkaratutako Aginduak zehaztu eta definitzen ditu, nahasmena saihesteko».

Testuinguru horretan, Osasun Sistema Nazionaleko A1 taldeko osasun-langileen grebaren harira ezarritako irizpideei jarraitu behar zaie. Greba horretan, prozesu atzeraezin deritzenen irismena zehaztu zen. Hala, irizpide horiek beste kolektibo batentzat definitu baziren ere, greba-deialdi honetan guztiz aplikagarria da haien edukia, goi-mailako eta erdi-mailako teknikariek funtsezko funtzioak betetzen baitituzte proba diagnostikoak eta tratamenduak egiteko, eta proba horiek eteteak arriskuan jar baitezake pazienteen bizitza, osasuna edo eraginkortasun terapeutikoa.

Ondorioz, kasu honetan ere, atzeraezinak diren prozesuak bermatu beharko dira, hau da, eguneko ospitale onkohematologikoaren jarduera, hemodinamika, iktus-unitateak, zainketa intentsiboak, neonatologia, erditzeak, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan (TGEEZ) egiten den jarduera, bai eta mendeko beste edozein tratamendu edo proba osagarri ere, baldin eta horiek eteteak pazientearen bizitza edo osasuna arriskuan jartzen badu, edo aukera edo eraginkortasun terapeutikoa galtzen badu, irizpidearen arabera eta medikuaren erantzukizunpean.

Osasun-arloko lehen mailako arretari dagokionez, arazorik gabe hartzen da oinarrizko zerbitzutzat, ospitalez kanpoko larrialdiei estaldura ematen dien heinean batez ere. Jarduera-sektore honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, esan behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak emandako epai batzuen ondotik: 2012ko urriaren 3koa, deuseztat jo zituen 2012ko martxoaren 29an 24 orduko greba orokorra egiteko 2012ko martxoaren 23ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2013ko martxoaren 5koa, deuseztat jo zituen 2012ko azaroaren 14an eta 2013ko maiatzaren 30ean 24 orduko greba orokorrak egiteko 2012ko irailaren 19ko Aginduaren bidez ezarri ziren lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzuak; eta 2016ko ekainaren 14ko greba-deialdia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileentzat egina, txanda guztietarako bi orduko ordu-tarteetan –ez dago jasota haien aurka egin zenik, ez administrazio-bidetik, ez auzibidetik–, gobernu-agintariek erabaki zuten larunbatetako lanaldiari dagokiona –eta larunbatetako ohiko ordutegia– ezarriko zutela lehen mailako arretarako gutxieneko zerbitzu gisa, greba-egunerako aurreikusita zegoen langile-kopuruarekin; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei. 2018ko martxoaren 8ko grebaren aurrean, zerbitzu berberak ezarri ziren. Azkeneko horretan, ordea, errekurrituak izan ziren oinarrizko eskubideen babes juridikzionalaren prozedura bereziaren bitartez; hala ere, Salak Zuzenbidearekin bat zetozela ebatzi zuen, interpretazio-lana egin ondoren. Horrexegatik, azkeneko greba orokorrari begira -2019ko martxoak 8- zerbitzuak mantendu baziren ere, idazketa zuzenagoa erabili zen. Orduko zerbitzuak arazorik gabe gauzatu zirenez, eutsi egin zaie deialdi honetan.

Larrialdi-zerbitzuei eta Etengabeko Arreta Guneei (aurrerantzean, EAG) dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi zuen errekurtsogileak larrialdi-zerbitzuetarako eta etengabeko arretaguneetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuen inguruan zuen asmoa, hau

da, zerbitzu horiek gehiegizkotzat jotzea (%100eko zerbitzuak ezarri ziren), arrazoi hau aipatuta: «larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta etengabeko arretaguneen helburuak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan (osasunaren eremuan) eta osotasun fisikoa eta bizitzeko eskubidea ahaztu gabe, errekurtsua jaso duen aginduan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezartzea»; horrenbestez, eutsi egin zaie zerbitzu horiei.

Gutxieneko zerbitzu antzekoak ezarri ziren 2023ko urriaren 23ko Aginduan, 2024ko martxoaren 8ko Aginduan eta 2025eko urriaren 1eko Aginduan, Euskal Sektore Publikoan deitutako bi grebaren ondorioz emandakoak, bai eta lau greba orokorretarako emandako 2023ko azaroaren 28ko eta 2024ko irailaren 26ko, 2025eko urriaren 13ko eta 2026ko martxoaren 13ko Aginduetan ere.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailean funtsezko erreforma bat egin zela erabiltzaileen arretan: CALL CENTER izeneko sistema. Sistema horrek, osasun-arreta bere horretan ematen ez badu ere, zerbitzu hori benetan ematea ahalbidetzen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen harremana baita; zerbitzu hori bereziki nabarmena da osasun-aholkuari dagokionez. Izan ere, telefono-zerbitzua da, eta lehen mailako arretako erizaintzako langileek ematen dute. Bertan, erabiltzaileen premiak balioesten dituzte eta, haien egoeraren arabera, dagokion zerbitzura bideratu. Zehazki, larrialdi-zerbitzura (bizilekura ambulanzia bat bidalita) edo etengabeko arretagunera (bizilekurako abisua zuzenean kudeatuta) bidera daitezke. Garbi dago, beraz, Call Center izeneko osasun-larrialdietara bidera daitezkeen deien iragazkia dela, osasun-aholkuan gerta litekeen kolapsoa saihesten duela, eta osasun-lehentasuna duten deiak eta dei arruntak bereizten dituela. Horrez gain, beste zerbitzu batzuk egiten ditu, hala nola aurrez ordua eskatzeko deiak hartzea, IVR telefono-sistema bidez operadore birtual gisa jardutea, zenbaki generikoetatik aurrez ordua eskatzeko iristen diren deiak hartzea, zerbitzuei buruzko informazio orokorra ematea, etab. Azkenik, Autonomia Erkidegoko zentro guztietako O-Sarean barruko zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari lotutako barne-gorabehera teknikoak kudeatzen ditu. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme horrek eta osasun-aholkuak bultzatu dute gobernu-agintaritzak hau zerbitzu hori bermatu beharreko ezinbesteko zerbitzutzat hartzea, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen heinean.

2014. urtean, Call Center Korporatibo zentralizatua bi sistemarekin ordeztu da:

- a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da ambulatorioen artean, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea sistema horretan.
- b) Eta hainbat erakunde sanitario integratutan (ESI) call center sistema bat ezarri da, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen dituen, baina erakunde horietako bakoitzera mugatua.

Bigarren call center mota honetan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra honako hauek arrazoitzen dute: batetik, lehengo call center korporatiboaren funtzio berak betetzen ditu, erakunde sanitario bakoitzera mugatuta bada ere; eta, bestetik, telefono bidezko arreta oso garrantzitsua da; izan ere, arreta hori funtsezkoa da osasun-antolamenduan, herritarrek osasun-sistemearekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen dituzten bideetako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, telefonoz ordua aurrez eskatzeko eskariaren banaketa orekatuagoa lortzen da eguneko orduetan. Horri esker, zerbitzuek ez dute gainezka egiten lehen orduetan, eta telefonoz bideratzen ez diren pertsonak ez dute nahitaez osasun-zentrora joan behar.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan hartu behar da aurreko Call Center Korporatiboan urteko egun guztietan egiten zela lan, nahiz eta astelehenetik ostiralera bitarte jarduteko plantilla bat eta larunbaterako beste bat egon. Egungo Call Center zerbitzua antolatuta dagoen moduan, berriz, ez da zerbitzurik ematen larunbatetan. Beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbatetako zerbitzuetara mugatzea zerbitzurik ez ezartzea izango litzateke, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaiak berretsi zuenez. Hori guztia dela-eta, Osakidetza Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, egungo plantillaren % 50 behar da zerbitzu hori betetzeko, eta, hortaz, lan horiek egin ohi dituzten langileen ehuneko hori ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Zirkunstantzia horietan guztietan oinarrituta, COVID-19ak eragindako pandemia hasi aurreko greba-deialdietan – aipatutako zerbitzuari eragiten ziotenetan –, 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua, 2016ko ekainaren 10eko Agindua eta 2018ko otsailaren 27koa, 2019ko otsailaren 28koa eta 2020ko urtarrilaren 20koa–oraingoa bezalako deialdian– eman ziren eta, haien bidez, ehuneko hori ezarri zen gutxieneko zerbitzu gisa. Ildo beretik, berrikiago eman dira 2023ko maiatzaren 12ko eta 17ko aginduak, OSAKIDETZAN deitutako greba baterako.

Hala ere, orduan ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez dira premisa juridiko loteste bat deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko – doktrina konstituzionalak debekatutako inferentzia-, baina aukera ematen dute egiaztatzeko zer ondorio positibo edo negatibo izan dituzten agindu honek babestu nahi dituen eskubide eta ondasun konstituzionalentzako – grebakoa barne-. Horregatik, agindu honek eutsi egiten die orduan emandako gutxieneko zerbitzuei.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarritzko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Hain zuzen ere, Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharrianeko edozein zerbitzu emateko enpresetan, eta larritasun bereziko inguruabarrak daudenean, gobernu-agintaritzak beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, helburu horietarako esku-hartze neurri egokiak hartu ahal izango ditu».

Arau horretan – konstituzionala da (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [KAB 1981\11]), Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluekin bat etorriz, non honako hau ezartzen baita: «eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu gizartearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko» –, gobernu-agintaritzari ematen zaio edozein motatako berme-neurri hartzeko aukera, greba-kasuan funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko. Neurri horietako bat da administrazio-ebazpen bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea, eta zerbitzu horiek emateko deia egitea lan-prestazioa eman behar duten langile kopuru jakin bati.

Hori dela eta, Lan Harremani buruzko Errege Lege-Dekretuaren (martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege-Dekretuaren) 10.2. artikulua aipatzen duen prozedura hasi da, eta entzunaldia eman zaie ukitutako aldeei, enpresa-elkarteei eta sindikatuen ordezkariari, baita Foru Aldundiari ere, alegazioak egin ditzaten gizartearentzako funtsezkoak diren zerbitzu haiek bermatzeko beharrianari buruz, bai eta, hala badagokio, estali beharreko gutxieneko zerbitzuak proposa ditzaten ere.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 3. artikulua aipatutako Sailaren titularrari esleitzen dizkio ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, aipatutako artikulua 2. j) apartatuak ezartzen du ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak xedatzen duen eskumen delegatua egikaritzea, hau da, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate edo erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean, Autonomia Erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko behar diren neurriak hartzeko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Gobernuko bigarren Lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak hartuta, honako hau,

EBAZTEN DU:

Lehena.- EAeko erdi-mailako teknikarien eta goi-mailako teknikarien lanbide-kategorietako langile sanitarioek, 2026ko maiatzaren 25ean eta ekainaren 15ean, maiatzaren 25eko 08:00etatik maiatzaren 26ko 08:00etara, eta ekainaren 15eko 08:00etatik ekainaren 16ko 08:00etara, deitutako greba-eskubidea baliatzeko, honako funtsezko prestazio eta gutxieneko zerbitzuei eutsi beharko zaie:

1.1 Zerbitzu Minimoak:

- a) Ospitaleetan, jaiegun bateko ohiko langileekin, larrialdi-zerbitzuak eta ospitaleratutako gaixoei eman beharreko arreta, alta medikoak emateko beharrezkoa den edozein prozesu mota barne.

Dialisi-prozesuen eta aurrez zehaztutako tratamendu onkologikoen % 100 bermatuko da.

Prozesu atzeraezinen % 100 bermatuko da. Halakotzat hartuko dira eguneko ospitale onkohematologikoaren jarduera, hemodinamika, iktus-unitateak, zainketa intentsiboak, neonatologia, erditzeak, Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroan (TGEEZ) egiten den jarduera, bai eta mendeko beste edozein tratamendu edo proba osagarri ere, baldin eta horiek eteteak pazientearen bizitza edo osasuna arriskuan jartzen badu, edo aukera edo eraginkortasun terapeutikoa galtzen badu, irizpidearen arabera eta medikuaren erantzukizunpean.

- b) Lehen mailako arretan, deitutako greba-egunean lan egin behar duten osasun-zentroetako langileekin, larunbat batean zerbitzu horiek ematen dituzten langileen kopuruak emandako larunbat bateko zerbitzuak.
- c) Larrialdi-zerbitzuen eta EAGen % 100.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko ESletako call center zerbitzuetan, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50.

1.2 Gutxieneko zerbitzu horiek nahitaez bete beharko dira, deialdian ezarritakoaren arabera. Deitutako greba-egunak maiatzaren 25eko 08:00etan hasi eta maiatzaren 26ko 08:00etan amaituko dira, eta 2026ko ekainaren 15eko 08:00etan hasiko dira berriro, eta 2026ko ekainaren 16ko 08:00etan amaituko.

Bigarrena.- Adierazitako zerbitzuak aldatu ahal izango dira, dagozkion administrazio-izapideak egin ondoren, grebaren iraupenaren arabera edo arrazoi higienikoen, biosanitarioen edo gerora sortutako bestelako aparteko arrazoiek hala eskatzen dutenean.

Hirugarrena.- 1.- Ahal izatekotan, zerbitzu horiek greba egin behar ez duten langileek emango dituzte.

2. Langileen ordezkarietara entzun eta gero, enpresen zuzendaritzak esleituko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

Laugarrena.- Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

Bosgarrena.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Zazpigarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
VICEPRESIDENTE SEGUNDO DEL GOBIERNO Y
CONSEJERO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO